

EUSKARA SAREAN

ARKITEKTURA-IRAKASLE BATEN ESPERIENTZIA

Unai Fdz. de Betoño

AURKEZPENA (pertsonala eta orokorra)

- Aurkezpen pertsonala edo *excusatio non petita*: Ez naiz aditua ez Interneten (ez nago ez Facebook-en, ez Twitter-en), ezta euskararen ere (areago, gasteiztarra izanik, nire ama-hizkuntza espainiera izan da). Dena den, ez dut gustuko *euskaldun berri* etiketa, 3 urte nituenetik ikastola batean ikasi bainuen *geure* hizkuntza. Ikastolako garaian, eremu ez euskaldunetako ohiko patroia jarraitu nuen: etxean espainieraz, kalean espainieraz, eta ikastolan, euskaraz. Donostiara unibertsitate-ikasketak egitera etorri arte ez nintzen euskalduntasunaz jabetu eta kontzientziatu. Gaur egun —euskaldunon kontraesan guztiekin— Internetzale euskalduna naiz. *Euskara eta sarea. Arkitektura-irakasle baten esperientzia* izenburua aukeratu dut, euskaraz eta Internetez hausnartzeko derrigorrez esperientzia pertsonaletik abiatu behar naizelako. Sarea berandu samar ezagutu banuen ere, dagoeneko Interneteko euskarazko hainbat proiektutan murgilduta nago une honetan.
- Aurkezpen orokorra: Euskarak biziraungo badu, etxean, kalean zein sarean egiten delako izango da. Internet, hortaz, beste fronte bat baino ez da. Baina ez da haren garrantzi estrategikoa arbuiatu behar. Ezagutzaren gizartean —eta horretarantz omen goaz— informazioak eta komunikazioak erabateko garrantzia dute, eta horixe dugu sarea: informazioa eta komunikazioa, euskaraz indartu beharra daukaguna, sarean (ere) euskaldunak egon daitezen nahi baldin badugu.
- Hitzaldiaren formari dagokionez: David Crystal hizkuntzalari galesaren sei baieztapen gidari izanik antolatu dut solasaldia. 2000an argitaratu zuen *Language Death* (Hizkuntzen heriotza) idazlanaren 5. atalean, “*Zer egin daiteke?*” izena zuena, 6 estrategia edo gako orokor eman zituen hizkuntza txiki batek bizirauteko. Ordenaz aldatu baditut ere, eta jatorrizko idazlanean seirak Internetekin erlazionatuta ez bazeuden ere, uste dut sarearen ikuspegitik ere erabilgarriak izan daitezkeela. Eta irudiei dagokienez, guztiak dira Internetetik zuzenean kopia eta itsatsitako irudiak, Interneten gaudela eman dezan, aurkezpena eta sarearen arteko erlazioa —estetikoa, bederen— areagotze aldera.

TEKNOLOGIA (Internetek euskarari dakartzkion ekarpen orokorrez)

“*Arriskuan dagoen hizkuntzak aurrera egingo du baldin eta hiztunak teknologia elektronikoaren erabileran iaioak badira*”. – D. Crystal

- Teknologiaren inguruan esan ditzakegun gauza gehienak laster geldituko dira zaharkituak. Irakurgarria zen web 1.0-tik, irakurgarria eta idazgarria den web 2.0 eta haren gizarte-sareetara igaro gara, eta badirudi laster metadatuaren bidez ordenagailuentzat ulergarria izango omen den web 3.0 edo web semantikoa etorriko zaigula gainera, iraultza bat ekar dezakeena informazioaren ohiko bilatze-sistemetara, bai eta itzulpengintza automatikoaren mundura ere.
- Esan bezala, Internet ez da euskararen salbazioa izango, baina badira hainbat diskurtso erreakzionario haren garrantzi estrategikoa ikusten ez dutenak. Eremu ez euskaldunetan bizi garenontzat —Euskal Herrian zein atzerrian—, esaterako, izugarrizko tresna da euskara praktikatzeko, irakurri eta idatziz, behinik behin.
- Hasiera batean, web gune estatikoak egiteko eta posta elektronikoa pribatuak bidaltzeko erabili zen batez ere. Ohiko posta-zerbitzuaren erabilera irauli egin zuen horrek. Interneten euskararen presentzia 2001era arte oso urria izan zen. *ItzuL* eta *Eibartarrak* posta-zerrendak 1998an sortu zituzten (ez ziren lehenak izan, baina bai erabilienak, eta oraindik ere funtzionatzen dutenak). Gaur egun ere, *spam* edo zabor-posta oso gutxi dago euskaraz (*eusspam* izendatu zuen Igor Leturia informatikari eta blogariak 2005ean), eta hori esanguratsua da.

- Internetek jendarteratu eta demokratizatu ditu hainbat jarduera —*Sustatu* bloga, euskarazko lehena, 2001ean sortu zuten—, batez ere web 2.0 sare mota parte-hartzailearen agerpena eta gero: edozein izan daiteke musikari, argazkilaria, bideogilea, kazetaria, eta abar. Guztiok gara informazioaren emaile. Jello Biafra abeslaria eta aktibistaren esaldi ezaguna —“*Don't hate the media; become the media*” (ez gorrotatu komunikabideak, izan komunikabide)— masa-mugimendu bihurtu da, eguneroko kontua.
- Batzuek hori gogor kritikatu dute: Adibidez, Andrew Keen enpresaburu ingelesak, 2007an, “*The cult of the amateur. How Today's Internet is Killing Our Culture*” (Amateurraren kultura. Egungo Internet gure kultura nola hiltzen ari den) liburuan zera esan zuen, web 2.0 delakoaren populismoak eduki kaskarrak baino ez dituela ekarri; herri xeheak hartu duela adituen eta profesionalen esparrua (musikan, kazetaritzan, literaturan, eta abar), ekonomia, kultura eta gizabaliok suntsituz, eta sarea arruntasunaz betez. Keenek dio Interneten ez dela betetzen ari *tximino infinituen teorema*, esaten duena infinitu tximinoei infinitu idazmakina emanda, inoiz maisulanaren bat idatziko dutela kasualitatearen kasualitatez.
- Euskaldunok ere horretan ari gara: teknologiarik esker, komunikabide bilakatzen, kultur-sortzaile bilakatzen. Administrazioaren ekimen instituzionalei herritarren ekimen xumeak —eta ez hain xumeak— gehitu behar zaizkie. Gizarte-sareekin, gainera, Chris Andersonen 2004an azaldu zuen *buztan luzean* daudenak elkarrekin antolatzen ari dira/gara. Sareari esker, ekimenak —errealak zein birtualak— autoantolatu eta deszentralizatu egin dira. Talde-adimen berri bat sortzen ari da —ingelesez *Swarm intelligence* esaten diote—, kolektiboki indartsuagoa dena (Deborah Gordon biologoak zera esan zuen: “*inurri bat ez da azkarra; inurri-kolonia bat, bada*”).
- Talde-adimen berri horren teknologia nagusia *wiki* izeneko software mota da. EHUko Arkitektura Eskolan arkitekturako terminologia-mintegi bat antolatu genuen 2005-2006 ikasturtean, Juan Kruz Igerabideren laguntzarekin, eta *wikiztegi* bat sarean sortu (www.ehu.es/arkitekturahiztegia), bilera errealak eta bilera birtualak uztartuz, oraindik ere edukiz elikatzen ari garena. Bazegoen UZEIren eraikuntza-hiztegi bat, 1990ekoa, baina guretzat ez zen nahikoa, eta guk geuk sortzea erabaki genuen. Antzerako ekimena jarri dute martxan Mondragon Unibertsitatearen Huhezi fakultateko zenbait irakaslek —Joxe Aranzabal gidari—, komunikazioaren inguruko glosategiarekin: <http://komunikazioglosategia.pbworks.com/>.
- *Wiki* filosofiarekin gauzatzen ari den proiekturik interesgarriena: Euskal Wikipedia. eu.wikipedia.org. Wikipedia edonork aldatu dezakeen entziklopedia libre eta eleanitza da. Euskara sarean zabaltzeko eredu ona da, talde-lana eta ezagutza librea bultzatzen dituelako. Eta, jakina, bilatzaileetan pisu handikoa delako. Borondatezko lanean oinarritzen denez, Wikipedia buztan luzearen teoriaren frogatza da, milaka boluntariok profesional tradizionalak baino etekin hobea lortu baitezakete (Microsoft-ek *Encarta* entziklopedia bertan behera utzi behar izan zuen 2009an Wikipediaren konpetentziagatik). Nik hiru urte daramatzat Euskal Wikipedian parte-hartzen, eta ia urte eta erdi bertako administratzaile bezala, eta esan behar dut bertan topatzen ditudala bai ezagutza bai gozamina, zer edo zer erabilgarria ere egiten dudalako, euskarari erabilgarritasuna aurkitzen diodalako: Euskal Wikipedia bezalako proiektuak ez dira maila sinbolikoan geratzen; maila funtzionalean eragiten dute. Halaber, nazioarteko proiektu bat izanik, Wikipedia euskararen erakusleho garrantzitsua dela uste dut.

HEZKUNTZA (Internetek euskal hezkuntzari dakarzkion ekarpenez)

Arriskuan dagoen hizkuntzak aurrera egingo du baldin eta hiztunek hezkuntza-sisteman presentzia indartsua badute. – D. Crystal

- Eta Internet hezkuntza-sistemaren jarduerarako bat gehiago da, gutxietsi behar ez dena. Interneten ere euskarazko hezkuntza bultzatu daiteke, eta bultzatu beharko litzateke, bai goitik (alegia, administrazioetik) bai behetik (ekimen indibidualetik). Ni Euskal Herriko Unibertsitatara sartu eta bi urtetara web gune xume bat martxan jarri nuen, 2006an, ikasleentzako oharrak eta notak eskegitzeko, baita apunteak eskegitzeko ere (www.ehu.es/hirigintza). Hasiera batean Word programarekin egin nuen —OpenOffice ezagutu baino lehen—, html ez nekielako, oso

modu oinarrizkoan, eta 2007an *MediaWiki* izeneko wiki-plataforma instalatu nuen, Wikipediatik ondo ezagutzen nuelako. Momentuz, ikasleek ezin dituzte bertan aldaketak egin, eta oraintxe bertan nik bakarrik eguneratzen badut ere, unereren batean hirigintzako hiru irakasle izan gara bertan aldaketak egiten eta edukiak eguneratzen. EHU-n bazegoen *Moodle* izeneko piloto-esperientzia bat 2005etik, hainbat ikastegitan aurrera eraman zena, baina, oker ez banago, 2008 urtera arte ez zen masiboki eskola guztietan gauzatzen hasi. *Moodle*, *MediaWiki* bezala, edukiak kudeatzeko sistema bat da, orientatuagoa dagoena hezkuntzarako, egutegi eta foro bat dituen heinean. EHUko Moodle-ri ikusten diodan arazoa: ez dela kanporako ikusgarri. Irakasgai gehienetara sartzeko pasahitza behar da, eta, hori ezagutza partekatzearen aurka doa. Unibertsitate mailako euskarazko sare bat osatu nahi badugu, ezin gara edukietara iritsi ahal izateko pasahitzak jartzen ibili.

- Unibertsitatearen sartuko diren ikasleentzat ate irekien jardunaldiak prestatzen ditu EHUk, eta horiek behar-beharrezkoak ikusten ditut, baina uste dut Interneten ere antzerako zerbait egin beharko litzatekeela. *Maiz egindako galderak* izeneko atala ez da nahikoa. Zentzu horretan, erakusgarria iruditzen zait Udako Euskal Unibertsitateak urtero antolatzen duen *Iparrorratza* zerbitzua, non ikasle ohiek etorkizuneko ikasleen galderak banan-banan erantzuten dituzten. Horren onura bistakoa da: interesa duen edozein ikasleek irakur ditzake foro horretako galderak eta erantzunak. Nik bietan hartu dut parte, eta EHUren sistemako harreman fisikoa garrantzitsua bada ere, oso nekeza da galdera berdinak etengabe erantzuten egotea.
- *Eskola 2.0* ekimen instituzionala. Tresnak badauzkagula dirudi. Orain edukiak behar dira. Besterik gabe, aipatzea Wikipediako lankideok proiektuaren aurrean zalantzak dauzkagula, uste dugulako Eskola 2.0-k bandalismoa areagotu dezakeela Wikipedian, irakasleak zertxobait hezten ez badira (laupabost baliabide tekniko eta estilistiko baino ez lirateke).

IDAZKETA (Interneten idazteak euskarari dakartzkion ekarpenez)

Arriskuan dagoen hizkuntzak aurrera egingo du baldin eta hiztunak haien hizkuntzan idazteko gai badira. – D. Crystal

- Badira Internet pornografiarekin eta pirateriarekin bakarrik erlazionatzen dutenak, baina badira beste erabilera interesgarriagoak, kulturarekin eta idazketarekin erlazionatuta. Urte hasieran, esaterako, Michel Houellebecq idazlearen eta Bernard-Henri Lévy filosofoaren arteko posta elektronikoen bilduma batekin paperezko liburu bat argitaratu zuten. Halaber, blog askoren edukiak interesgarriak direlakoan paperezko formatuan argitaratu egin izan dira (Xabier Mendiguren Elizegik, esaterako, horrelako bi argitaratu ditu dagoeneko).
- Hortaz, eduki interesgarriak eskaintzea da gakoa euskara Interneten osasuntsu egon dadin. Azterketa zorrotzak behar ditu euskarak Interneten ere. Helburu horrekin, duela urte bat euskarazko lehen arkitektura-aldizkaria sortu dugu arkitekto lagun batzuk, Udako Euskal Unibertsitatearen sustapenarekin, *Aldiri. Arkitektura eta abar*, eta paperezkoaz gain, Interneten blog bat ere jarri dugu martxan: www.unibertsitatea.net/blogak/aldiri. Blogen heriotza aldarrikatu du baten batek, baina, nire ustez, blogen formatua egokia da oraindik ere, parrafo oso bat patxadaz idatzi daitekeelako, Twitter-en eta antzerakoen telegrafismoaren aurrean. Blogetan, halaber, irudiak zuzenean txertatu daitezke, ez zeharka eta loturen bidez, Twitterren bezala. *Euskal Blogosfera Planeta* bezalako web guneak oso interesgarriak iruditzen zaizkit —bertan ez du inork idazten, baina RSS eta Atom jarioen bidez eduki libreak dituzten euskarazko blogen eguneraketak automatikoki argitaratzen dira—, euskarazko blog desberdin askoren artean sare-izaera sustatzen dutelako.
- Interneteko idazketaren arriskua: euskara gehiegi artifizializatzea. Idazteko eta irakurtzeko baino ez erabiltzea, eta ahozkotasanak indarra galtzea. Umeek eta nerabeek Interneten aurrean ematen duten denbora guztia ahozko transmisioari kendu egiten diote. Gutxienez, orain arte, zeren eta, ematen du etorkizun gertu batean ahozkotasanak gero eta protagonismo gehiago eduki dezakeela sarean: bideoblogak, Interneteko telebistak, Skype... Euskaldunok ere horretan hasi gara saltseaten: *Albisteak 2.0* (Patxi Gaztelumendi eta Galder Gonzalez) edo *Tokitan.tv* (Harkaitz Rodriguez) horren eredu bikainak dira.

PRESTIGIOA (Internetek euskararen prestigioari dakartzkion ekarpenez)

“Arriskuan dagoen hizkuntzak aurrera egingo du baldin eta hiztunek haien prestigioa indartzen badute nagusia den hizkuntzaren komunitatean”. – D. Crystal

- Euskal internauten autoestimua landu beharra dago. Horretarako, hizkuntzalari guztiek diotenez, euskaldunen eta euskararen estatusa edo prestigioa goi mailan edukitzea funtsezkoa da. Horretarako, administrazioaren eta ohiko hedabideen (egunkarien, telebisten eta irratiaren) lana ezinbestekoa da, Interneten euskaraz egiten den lan ona aintzatetsiz. Hedabide mota batek bestea elikatzen du, eta azkenean euskara irten daiteke irabazle. Lehiaketak antolatzea eta sariak ematea ondo dago (ekimen pribatutik, Argia Sariak urtero uzten dio leku bat Interneteko euskarazko ekoizpenari; eta ekimen publikotik, hainbat lehiaketa antolatu dira, adibidez, Bilboko Udalak —Nontzeberrirekin batera— *Bilblogari* sariak antolatu zituen iaz), baina ez dakit hori nahikoa ote den.
- Hizkuntza nagusien (espainiera, frantsesa eta ingelesa) aurreko ikusgarritasuna ere garrantzitsua da. Existitzen garela jakin behar dute. *Nick dut nik* programan —lehen, gutxienez, euskaraz soilik ekoizten zena— Espainiako web gune garrantzitsu baten arduraduna elkarriketatzeak euskara eta espainieraren arteko zubi-lana eraikitzen lagundu dezake.
- Prestigioaren maila sinbolikoan *PuntuEus* ikur bereizgarri bihurtu daiteke, eta, beharbada, uste duguna baino garrantzitsuagoa izan daiteke.

UGARITASUNA (Internetek euskararen kantitateari —eta horrek kalitateari— dakartzkion ekarpenez)

Arriskuan dagoen hizkuntzak aurrera egingo du baldin eta hiztunek haien ongizatea (aberastasuna edo ugaritasuna) indartzen badute nagusia den hizkuntzaren komunitatearekin alderatuta. – D. Crystal

- Kanean hiztunen gutxienerako masa kritiko bat beharrezkoa den bezala, sarean ere internauten dentsitate minimoa funtsezkoa da. Horretarako eduki interesgarriak eskaini behar dira. Morboa dagoenean —eta hori kazetariak oso ondo dakite— audientziak gora egiten du. Morbo gutxi al dago euskaraz sarean? Nik dakidala, euskarazko blog baten erantzun-errekorra hautsi berri da Sustatun, Iruña-Veleiako auziaren inguruan (323 erantzun; erantzuleen artean, komikilariak, filologoak, konspiranoikoak, bai eta euskaltzainak ere). Horrelako kasuetatik ikasi beharko genuke.
- Ahalik eta esparru gehienetan behar da euskara. Informazio orokorra eskaintzen duten web guneekin batera, blog espezializatuak ere beharrezkoak dira, Fermin Etxegoienek *Neurona eta Zeurona* idazlanean aipatzen zuen euskararen eten estetikoa gaitzetzeko aldera. Zergatik ez pornografian espezializatutako euskarazko blog bat? Internetek euskara gaurkotzen lagun dezake, erakutsiz euskarak ez duela balio soilik bertsoaritzaz eta bestelako ohiko euskal gaiez aritzeko.
- Ugaritasunaren teoria hori hoberen azaldu duen artikulua, nire ustez: *Euskara zikina* (Irati Jimenez, 2008): *“Euskara garbia baino, euskara gardena, bizia. Gezur esaten dakiena, Interneten pornografia bilatzen duena (...)”*.
- Software librea euskara bezalako hizkuntza txikien lagun izan daiteke, gauzak egiteko —interfazeak lokalizatzeko edo euskaratzeko, kasu— kostuak gutxitu egiten direlako. Alde horretatik, sekulako lezioa ematen ari da herri-ekimena, librezale.org bezalako proiektuen bidez (Windows 7 euskaratzeko administrazioak hilabeteak behar izan ditu; Ubuntu bezalako distribuzio libreak, ordea, euskaraz egoten dira lehen egunetik, boluntarioen lan eskergari esker).

ALDARRIKAPENA (Interneten euskaraz aritzeko eskubideaz)

Arriskuan dagoen hizkuntzak aurrera egingo du baldin eta hiztunek haien botere legitimoa indartzen badute (haien hizkuntzan aritzeko eskubidea aldarrikatzen badute) nagusia den komunitatearen aurrean. – D. Crystal

- Hilko ez bada, euskararen erabileraren aldarrikapena egin behar dugula argi dago. Presioa egin beharra dago. Horretarako, irudimena erabili behar da. Askotan, internautak zirikatzeak emaitza onak eman ditzake (Sustatuk abian jarritako ekimena, “*Tu navegador está configurado en español*” probokatzaillearen erabilerarekin). Ohiko kexen eta gaitzespenen orde, probokazio zirikatzailea.
- Arriskua dago Internet bihurtzeko gure aldarrikapenen eremu bakarra. Forgesen txisteak argi adierazten du Interneten barruak husten dituen blogari nerabeak gero ez diola hainbeste zirikatzen familiari. Antzerako zerbait gertatu daiteke euskararen aldarrikapen birtualarekin. Horregatik interesgarriak dira Internet eta errealitatea uztartzen dituzten aldarrikapenak. Askotan, Internet erabiltzen da errealitatean egingo den aldarrikapenen baten promozioa alde aurretik egiteko, eta, ondoren, ekimenaren berri eta zabalkundea egiteko. Adibide ona irudituz zitzaidan —euskaltzaleon alderdi afektiboa landu zuen heinean, gainera— Kontseiluak zabalduz bideoa Iruñeko maiatzaren 15eko manifestazioa iragartzeko, Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatuz.
- Euskara eta erabilgarritasuna uztartzea estrategia etekingarriena izan daiteke, eta ez da sarritan lantzen. Zentzu horretan, euskarak etekin ekonomikoa ekar lezakeela azpimarratzea ez litzateke estrategia txarra. Enpresei euskarazko zerbitzua masiboki eskatzen bazaie, euskaldunak kontratatu behar izango dituzte, horrek euskal ekonomia eta euskara bera indartuko litzukeela (*euskerakasi* izeneko blog pertsonal batean, esaterako, enpresei fakturak euskaraz eskatzearen garrantzia azpimarratu da, bai eta hura nola egin aholkatu ere: <http://ttiki.com/15102>).
- Erosoa izan behar du euskararen erabilera Interneten ere bai. Baina euskal internautoi eskatzen zaigu behin eta berriz esfortzua. Web guneek, batez ere instituzionalek, defektuz euskaraz eman beharko lukete zerbitzua nabigatzailea euskaraz konfiguratuta izanik (edo, gehienez, EHUren web gunean bezala, hizkuntza hautatzeko aukera). Errentaren aitortzea euskaraz egin berri dut, eta aitortzea behin betirako itxi baino lehen berriz ere galdetu dit ea zer hizkuntzan inprimatu nahi nuen, eta defektuz “erdaraz” jartzen zuen. Interneten berdina gertatzen da askotan, gehiegitan, www.irekia.euskadi.net-en, adibidez (katxea garbituta lehen aldiz sartzerakoan), espainierazko bertsioa agertzen da, nahiz eta ordenagailuko sistema eragilea eta web nabigatzailea euskaraz konfiguratuta eduki.
- Euskarak gune hegemonikoak edo nagusitasun-guneak behar ditu Interneten ere bai: Web gune horretan bertan, mezuetan erantzunak utzi daitezke, baina ez dira ezberdintzen euskarazkoak eta espainierazkoak, eta horrek erabat eragozten du euskarazko elkarrizketa bat normaltasunez suertatzea. Euskara hutsean funtzionatzen duten arnaguneak sarean ere eraiki beharko ditugu, orduan.